

Iñaki Martínez de Luna

SOZIOLOGOA ♦



ITZAR UGARTEMENDIA

Hizkuntza-politika berrirako iruzkinak

2012AN KALERATU diren Inkesta Soziolinguistikoak eta Kale Neurketak erakutsi digutenez euskararen erabilerak zenbait eremutan motel egin du gora eta beste batzuetan goia jo. Izan ere, euskara jakin eta maitatzen duten elebidun askok gehiago erabiltzen dute erdara euskara baino. Egungo hizkuntza-politika agortua dago.

Bestalde, 2012an bertan Eusko Jaurlaritzan aldaketa izango dugu, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (HPS) ere barne. Bi elementu horiek begi-bistan jartzen dituzte hizkuntza-politika biziberritzeko premia zein abagunea.

Hona hemen abiapuntu dugun axioma: HPS berri bat ez da gauza izango hizkuntza-politika eraginkor bat bere kasa abian jartzeko. Ez, ohiko duen jardun-esparrua mugatua delako: euskalgintzako eragile nagusiak HPSren planteamendutik at daudelako; gizarte sektore batzuek hizkuntza-politika gehiegizkotzat eta beste batzuek eznahikotzat jo ohi dutelako; HPSren hizkuntza-politika EAEra mugatu ohi delako.

Horregatik, hizkuntza-politika berriak bere joko-zelaia zabaldu beharra du, modu zuzenean edo zeharka, hiru dimentsio horietan: a) euskalgintzako eragile

nagusiekin elkarlanean jardunez; b) gizarteko sentsibiltate zabal batekin konpromisoak adostuz, aurrera pauso sendoak eta itzulezinak eman ahal izateko; c) EAEko muga administratiboez gainetik beste erakundeekiko harreman zuzenak areagotzeaz gain, beste lurraldeetan ere diharduten euskalgintzako eragileekin

batera mugaz gaindiko plana osatuz.

Bigarren iruzkina lehentasunezko xede-taldea zuhurtziaz eta efikazia eta efizientziaren izenean aukeratzea da. Horretarako, galdera honi erantzun egokia bilatu behar zaio: “Zergatik hitz egin ohi dute gehienbat erdaraz euskarari atxikimendua dioten elebidun askok?”. Izan ere, ez dut uste lehentasuna denik euskaratik lekutan bizi direnengan eragiten saiatzea. Besteak beste, hori lortzea zaila eta emaitza eskasekoa litzatekeelako. Aldiz, euskara sarri erabiltzetik gertuen daudenak horretara bultzatzea errazagoa litzateke. Gainera, horiek euskara gehiago erabiltzeak eragin biderkatzaileria izango luke gizarte osoan.

Iruzkin hauek zentzudun jokatu nahi duen edonori bururatuko zitzaizkionak baino ez dira: eragileen arteko elkarlana eta lehentasun handieneko helburuak finkatzea. ■



“Zergatik hitz egin ohi dute gehienbat erdaraz euskarari atxikimendua dioten elebidun askok?” galderari erantzun egokia bilatu behar zaio. Izan ere, ez dut uste lehentasuna denik euskaratik lekutan bizi direnengan eragiten saiatzea

DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Terapiak

MOTA askotarikoak daude. Batzuk aski zaharrak dira, eta bertze batzuk, berriz, sortu berriak. Nahi izanez gero, zerorrek ere zeurea asma dezakezu, erraza da teknika. Nahikoa da osagai edo kontzeptu bat hautatzea –zeinarekin terapia egingen den– eta gero delako teknika horren etiketari terapia hitza eranstea. Hitz bakarrean bilduta, hobe. Komunikatiboki eraginkorragoa. Salgarriagoa.

Badira urte batzuk Bigarren Hezkuntzan aritu nintzela irakasle. Gogoan dut, bertzeak bertze, nola eman zidan arreta ohartzeak 14-15 urte inguruko ikasleek hitzetik hortzera erabiltzen zutela “terapia”

solasa beren artean. Hala, lagunarteko giroan, terapia egin beharraz aritzen ziren gatzetxoak, txantxetan-edo.

Gora egin omen dute terapia mota guztiek azkenaldian. Krisi madarikatuan ikusi dute askok joera honen jatorria: zenbat eta itoago egon, orduan eta arnasbide gehiago bilatzen ditugu pertsonok.

Orain, *Ikeaterapiaren* iragarkia ikusita, orduko ikasle haien logika etorri zait bisitan gogora, sei urte geroago: aspalditik zegoen eri gizarte hau; aspalditik zebiltzan gaitza-ren sintomak gure artean. ■

